



DONOSTIANN

“TALENTUA ITZULTZEKO ETA ERAKARTZEKO PROGRAMA 2021”: TALENTU GAITUA ERAKARTZEKO ETA ITZULTZEKO LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK, HIRIKO GIZA KAPITALA INDARTZEKO. DONOSTIAKO EKONOMIA SUSPERTZEKO PLANA (PREK)

ATARIKOA

Fomento de San Sebastián S.A.-k, Donostiako Udaleko garapen ekonomikoaren sozietateak, besteak beste, **hiriko ekonomia- eta gizarte-garapena** bultzatzeko helburua dauka, bereziki, **jasangarritasunaren** irizpideen baitan, hiriko hainbat agenteren arteko **hitzarmenaren eta elkarlanaren** bitartez, eta gure hiri-eredua eraldatzeko apustu argi batekin, betiere, **berrikuntzaren** printzipioen ikuspegitik.

Helburu hori lotzeko, **ekonomia-egiturako lehiakortasuna hobetzera eta berrikuntza bultzatzera** zuzendutako hainbat ekimen eta politika garatu izan dira, ez sektore-dibertsifikazio baten aldeko apustua eginez eta ezagutzaren arloko sektoreak babestuz soilik (industria-zerbitzu aurreratuak, biozientziak, teknologia-zentroak, startup-ak, etab.), baita eraldaketa bultzatuz eta kudeaketaren eta kontsumoaren paradigma eta eredu berrietara egokituz ere, tradizionalagoak eta helduagoak diren sektoreetakoak, baina aldi berean, hiriarren aberastasuna, enplegua eta posizionamendurako erabakigarriak direnak.

D2011. urteaz geroztik, Donostia Sustapenak eta Donostiako Udalak hiriko ekonomia bultzatzeko urteko planak garatu izan dituzte. Aipatu planetan, azterketa eta estrategia propio batetik abiatuta, alde batetik, **giza kapitalaren garapenarekin** eta **enpresa-proiektuen garapena** babestearekin lotutako programak eta, bestetik, proiektu horietan, talentuaren garapenean eta markan bertan ekarpenak egin ditzaketen agente ezberdinen arteko **lankidetz-ekosistema bat garatzeko** babesa konbinatzen dira.

Lehenengo lau urteetan, eta ekonomia-krisiaren testuinguru batean, Planak hiru lerroko esku-hartze bat gauzatu zuen: ekintzaitzaren babesa, laneratzea eta enpresa-lehiakortasunaren babesa; hori guztia esku-hartze neurri eta programa zehatzekin, lurraldearen (auzoak eta industrialdeak), sektore ekonomikoen eta pertsonen kolektiboen arabera. 2015. urtetik aurrera, susperraldiaren marko batean eta oinarritzko printzipioei eutsi nahian, plana honako faktore hauetan zentratzen da: giza kapitala, enpresa-lehiakortasuna eta lurralde-kohesioa.

2020ko martxoaz geroztik, COVID-19k eragindako pandemiaren ondoriozko gizarte- eta ekonomia-krisiaren testuinguru batean gaude, hiriko enpresa- eta ekonomia-jarduera eta horrek sortutako enplegua erabat kaltetuak izan dira, eta maila eta esparru ezberdinetako erantzun bat behar duen egoera bat sortu da.

Beste behin, publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetz, zalantzarik gabe, elementu



esanguratsu bat eta gizarte- eta ekonomia-aurrerapenak lortzeko erronka bat da, batez ere, elementu kritikoetan oinarritutako helburuak lortzeko, TALENTUA, alegia. Hortaz, estrategia partekatua behar dira, bertakoa eta berezitasuna aintzat hartuta, inpaktua eragitea ahalbidetuko dutenak, gaitasunak eta trebeziak txertatuz. Egoera horri erantzuteko, herri-mailan, Donostiako Udalak eta Fomento San Sebastián sozietateak ekintza-programa bat proposatu zuten, **Ekonomia Suspertzeko Plana (PREK)** izeneko, eta 2021ean ere segida eman zaió. Aipatu Planak hiriko sektore eta enpresa kaltetuenak babesteko neurriak eta baliabideak barne hartzen ditu, horien jasangarritasuna babestuz, baina elementu kritikoak garatzearen aldeko apustu argiari eutsiz, esaterako, hiriaren berrikuntza eta talentua.

Donostia Sustapenaren Ekonomia Suspertzeko Planaren (PREK) testuinguru honetan, profil gaituak erakartzera eta itzultzera zuzendutako laguntzak proposatzen dira, lan-ibilbide bat egin eta atzerriko eta EAETik kanpoko erakundeetan esperientzia lortu ondoren, tokiko erakundeetan txertatzen diren profilak alegia, proiektu berritzaileen eta I+G proiektuen bidez, ezagutza erantsia eskaintzen dutenak.



XEDAPENAK

1. ARTIKULUA HELBURUA

Ezagutzan eta berrikuntzan oinarritzen diren eta hiriaren etorkizuneko garapenean eragina izango duten tokiko proiektuen garapena sustatzea, horietara 35 urtetik beherako profesional gaituak txertatuz, atzerrian edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi direnak.

Laguntza horien bitartez, berrikuntza sortzen duten erakunde donostiarretan ezagutza aditua eta esperientzia daukaten pertsonak txertatu nahi dira, profesional donostiarren itzuleraren eta beste profesional batzuen erakarpenaren bitartez, aipatu erakundeek behar dituzten ezagutza espezializatuak dituztenak.

Era horretan, hiriko garapen sozioekonomikoa babesten jarraitu nahi da, ezagutzan eta berrikuntzan oinarritua eta honako jarduketa-esparruetara bideratua:

- **Donostia “Berrikuntzaren hiri” gisa** sustatzearekin lotutako proiektuak: jarduketa-lerro horren bitartez, alde batetik, teknologiaren eta berrikuntzaren oinarria eta nazioarteko irismena (Born Global) daukaten negozio eta produktu berrien sustapenaren alde egin nahi da eta, bestetik, zientzia eta ezagutza hiriko ekonomia- eta ekintzailtza-egiturara eta biztanleria orokorrera hedatzea eta transferitzea bultzatzen duten ekimenak sustatu nahi dira.
- **“Donostia espezializatu” bat** ahalbidetzen duten proiektuak, Donostia Sustapenak bultzatzen dituen tokiko klusterrekin lotuak: Donostia Smart, Surf City Donostia, Guztiona (nekazaritzako elikagaiak: tokiko produktuaren garapena), eta Merkataritza eta Ostalaritza.
- **“Donostia adimentsu (Smart City)”** bat lortzera zuzendutako hainbat proiektu, hiriko eta hiritarren baliabideen erabilera adimentsuaren alde egiten dutenak, esperientzia eta berrikuntza irekiaren esperimentazioa bultzatzen dutenak eta gizarte donostiar integratzaile eta gizartearekiko arduratsu berri bat sustatzen dutenak.

2. ARTIKULUA BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak 172.920 euroko ekarpena egingo dio Talentua itzultzeko eta erakartzeko programari. Kopuru hori aldatu ahal izango da Donostia Sustapenak hala erabakitzen badu.



3. ARTIKULUA ONURADUNAK

Dirulaguntzaren onuraduna izango da, hura ematea funtsatu zuen jarduera egin behar duena edo hura ematea legezkozten duen egoera batean dagoena, baldin eta Oinarri hauetan barne hartzen diren baldintzak eta, bereziki, laguntza-mota bakoitzari dagozkionak betetzen baditu.

Dirulaguntzen onuradunak izan daitezke Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak, publiko nahiz pribatuak, bertakoak edo atzerriarrak eta izaera hori ez daukaten taldeak, baldin eta ordenamendu juridikoaren arabera osatuta badaude. Ondare-sozietateak baztertzen dira, urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru-arauaren 14. artikuluko zehaztapenetan aipatuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietatearen gaineko Zergei dagokiena.

Oinarri hauetan, egoki diren dirulaguntzak eskatzeko eta akreditatzeko baldintzak zehaztuko dira, eta beti, Dirulaguntzen Lege Orokorraren (aurrerantzean, DLO) 13. artikuluan ezarria bete beharko da, ondore horietarako, aplikagarri deklaritzen dena.

Ezingo zaie dirulaguntza eman honako ezaugarri hauek dituzten pertsona fisikoei edo juridikoei:

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrekin edota Gizarte Segurantzaren betebeharrekin egunean ez daudenak.
- Ebazpen irmoz zigortuak izan direnak, dirulaguntzak lortzeko aukerarik izan gabe, edo horretarako desgaitzen dituzten legezko debekuren batean nahasita daudenak, sexu-diskriminazioa egiteagatik zigortuak barne, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenean ezarriari jarraikiz, Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokiona.
- Donostiako Udalarekin edo Donostia Sustapenarekin zorrak dituztenak.
- Aurrez emandako dirulaguntzak itzuli ez dituztenak (neurri batean edo guztiz), itzuli beharreko zenbatekoa sartu dela egiaztatzen denera arte.

4. ARTIKULUA ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTU AHAL IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Deialdi honetan parte hartzeko, onuradunek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Proiektu berritzaileak, I+G+b proiektuak edota enpresarentzat gakoak diren jarduera berritzaileak garatzen dituzten proiektuak aurkeztea.
- b) Tokiko proiektu bat izatea eta kontratatu behar den pertsonaren lantokia Donostian egotea.



Europar Batasuna
Europako Gizarte Funtea
EGFK zure etorkizunean inbertitzen du

Unión Europea
Fondo Social Europeo
El FSE invierte en tu futuro

- c) Dirulaguntza hauen onuraduna irabazi-asmoak dituen ekonomia-jarduera bat garatzen duen pertsona fisikoa izatea edo, bestela, pertsona juridikoa.
- d) Ezin izango dira onuradun izan irabazi-asmorik gabeko fundazioak eta elkarteak. Salbuespen gisa, onuradun izan daitezke Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide diren irabazi-asmorik gabeko fundazioak eta elkarteak. Sare hori ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuak arautzen du.
- e) Ezin izango dira onuradun izan irabazi-asmorik gabeko erakundeek, ondare-sozietateek, elkargo profesionalek eta/edo sektore publikoko erakundeek (halakotzat hartuko dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan jasotako erakundeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko zuzentarauen transposizioa egiten dutenak Espainiako ordenamendu juridikora) % 25 baino gehiagoko partaidetza duten erakundeak. 2014/24/EB, otsailaren 26koa,

Hala ere, salbuespen gisa, onuradun izan ahalko dira, paragrafo honetan deskribatutako kasuan egon arren, baldintza hauetakoren bat betetzen duten erakundeak:

- Gaietik duten edo % 25etik gorako partaidetza duten erakundeak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide izatea.
- Erakunde eskatzailea bera ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuak araututako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide izatea.

5. ARTIKULUA DIRUZ LAGUNDU BEHARREKO KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Proiektu bakoitzeko kontratazio bakar bati eman ahal izango zaio dirulaguntza. Donostia Sustapena izango da bi eskaera proiektu berari ote dagozkion zehaztuko duena.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 52.400 €-koa izango da eta kontratuek, gutxienez, 12 hilabeteko iraupena eta % 100eko lanaldia barne hartuko dute.

Laguntza horrek **% 10eko gehikuntza** izan dezake kontratatutako pertsona emakumezkoa baldin bada.

Kontratazio bakoitzean abonatu beharreko dirulaguntzen amaierako zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen gastuen kostu errealaren % 100 izan daiteke, enpresak bere gain hartua eta ordaindua, hain zuzen ere.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira zuzenean aipatu baldintzak betetzen dituzten pertsonen kontratazioarekin lotutakoak, hau da: **soldata** (dietak barne hartu gabe) **eta gizarte segurantzaren enpresaren kontura**, lehenengo 12 hilabeteetako, lan-kontratu hasten den egunetik zenbatzen hasita (aldia aukeratu egin daiteke).



6. ARTIKULUA DIRULAGUNTZAREN KONTRATAZIOEN BALDINTZAK

Kontratutako pertsonak gutxieneko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) **Kontratazioaren unean 35 urtetik beherakoa izatea.**
- b) **Unibertsitateko Goi-mailako Graduako titulu bat izatea, Goi-mailako Diplomatura edo Lizentziatura edo Lanbide Heziketako Gradua.** Titulua atzerrian lortu bada, eskaera egiteko epea amaitzean, homologatuta egon behar da, irailaren 30eko 1954/1994 Errege Dekretuarekin bat etorritik, tituluen homologazioari buruzkoa. Prestakuntza gaituak izango dira beste era bateko prestakuntzak ere, berariaz sektorekoak edo jarduerakoak direnak. Kasu horietan, kontratazioaren unean atzerriko titulu bat homologazio-prozesuan edo homologatu gabe baldin badago, erakunde kontratatzailea izango da titulu hori garatu beharreko proiekturako baliozkotuko duena, Donostia Sustapenaren onespenerekin.
- c) **Donostian erroldatuta egotea**, gutxienez, lan-harremana hasi aurreko egunean, erakunde kontratatzailearekin (onuraduna) edo horrekin lotutako beste edozein erakunderekin lotuta dagoen –urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluan ezarritako baldintzen arabera, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergarena– edozein pertsona fisikoren helbidea ez den beste batean, aipatu artikuluan ezarritako baldintzen arabera.
- d) **Egoitza** atzerrian edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo izatea, gutxienez, **aurreko 12 hilabeteetan** zehar, lan-kontratua hasteko eguna baino hilabete bat lehenago zenbatzen hasita eta modu jarraituan.
- e) **Euskal Autonomia Erkidegoan lan egin ez izatea**, gutxienez, **aurreko 12 hilabeteetan** zehar, lan-kontratua hasteko eguna baino hilabete bat lehenago zenbatzen hasita eta modu jarraituan.
- f) **Langabezian egotea eta Lanbide-EEZn (Euskal Enplegu Zerbitzua) lan-eskatzaille gisa izena emanda egotea.** Izena emateko epea lan-harremana hasi aurrekoa izango da. Langabetuak ezin dira Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean edo Langile Autonomoen Erregimen Berezian langile gisa alta emanda egon, gutxienez, lan-harremana hasi aurreko egunetik.
- g) Kontratutako pertsona ez izatea onuradunaren ezkontidea, izatezko bikotea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera), bigarren graduako aurrekoa, ondorengoa edo albokoa, horren jatorria senidetasunean, odolkidetasunean, kideetasunean, izatezko bikotearen ondoriozko harremanean edo adopzioan izan axola gabe, ezta onuradunarekin lotutako pertsonaren izaera daukaten pertsonak ere, urtarrilaren 17ko



2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluko 3. atalean ezarritako baldintzei jarraikiz, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergarena.

Lan-kontratazioek gutxienerako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Lan-kontratuaren **hasiera 2021eko Urtarrilaren 1a eta 2021eko Azaroaren 30a** bitartean izatea (lan-kontratuaren hasiera-data), arrazoi justifikatuak direla eta Donostia Sustapenak berriaz beste hasiera-data bat baimentzen badu izan ezik.
- b) Jasoko den soldata, eta bi alderdiek sinatutako kontratuan islatuko dena (eurotan), gutxienez, **urtean 40.000 euro** gordinetara izatea.
- c) Kontratuaren iraupena urte 1 edo gehiagokoa izango da eta lanaldia % 100ekoa.
- d) Kontratazioari kontratatutako denboran zehar eta lanaldi-motan eutsi beharko zaio.

Lan-harremana 12 hilabete igaro aurretik amaitzen bada, arrazoi objektiboak edo enplegatzailearenak ez diren arrazoiak direla eta, Sustapenak langilearen ordezkapena baimendu edo dirulaguntzaren zati proportzionala ordaindu ahal izango du, baldin eta diruz lagundu beharreko denboran zehar, proiektuari beste baliabide batzuekin eusten bazaio. Onuradunak Donostia Sustapena jakinaren gainean jarri beharko du kontratua amaitzen denetik 10 egun igaro aurretik eta gainera, Sustapenak zehazten dituen dokumentuak aurkeztu beharko ditu, aipatu amaieratik, gehienez, hilabete bateko epean. Langilea ez ordezkatzear gain proiektua bertan behera uzten bada, diruz lagundu beharreko denboran zehar, dirulaguntza guztiz itzuli beharko da.

- e) Ebazpen-datan oraindik egin ez diren kontratazioak dirulaguntzaren ebazpen-datatik, gehienez, 2 hilabeteko epean egin beharko dira, epemuga 2021eko azaroaren 30a izango da, arrazoi justifikatuak direla eta Donostia Sustapenak berriaz beste hasiera-data bat baimentzen badu izan ezik.
- f) Kontratatutako pertsonen proiektuari egokitutako hasierako harrera bat jasotzea bermatuko da, Talentua itzultzeko eta erakartzeko programaren erakunde onuradunaren baitan. Aipatu harrera-planak proiektuaren jasangarritasunari buruzko prestakuntza-pilula bat barne hartu beharko du.

Honako kontratazio hauek **ez dira diruz lagunduko:**

- Prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratuak edo aldizkako kontratu finkoak.

Salbuespenezko neurrien arauketa, COVID-19k eragindako Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedientearen (ABEEE) kasuetarako



Salbuespenezko neurrien arauketa hori dirulaguntzen programa honen kontratazioak kaltetuak izan diren kasuei erantzuteko ezarri da, 2020 eta 2021. urteetan zehar COVID-19ren eraginez sortutako alarma-egoera dela eta jazotako egoera berdinen edo antzekoen ondorioz, aldi baterako enplegu erregulazioko espedientei dagokienez (ABEEE), martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-Dekretuaren 22 eta 23. artikuluetan ezarritako kausetan oinarrituta.

Horiek horrela, aipatu neurriek laguntzaren amaierako zenbatekoa kalkulatzeko elementuen tratamendua eta aldaketa arautzeko helburua daukate, lan-harremana hasi ondoren, euren buruak jarduera etetera edo murriztera behartuta ikusten dituzten enpresa/erakunde onuradunen kasuetarako, baldin eta horrek laguntza horien xede-kontratazioaren espedientea behar bezala garatzeari eragin badiezaioke.

Kasu horietarako, irtenbide eta irizpide hauek ezartzen dira:

1.– Deialdi honen baitan egindako lan-kontratuak eteten badira, aldi baterako enplegu erregulazioko prozedurei jarraikiz, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren (ETENALDIAREN ABEEE) 22 eta 23. artikuluetan ezarritako kausetan oinarrituta, eta etenaldia amaitu ondoren berriro ekiten badiote, 9/2020 Errege Lege-dekretuaren 5. artikuluan hitzartu zenaren arabera, diruz lagundutako aldien kontratazioak ere eten egingo dira eta kontratuaren etenaldia amaitu ondoren berriz hasiko dira zenbatzen.

Proiektuak amaitzeko epea aurrez ezarria baino geroago izan daiteke, eta diruz lagundutako kontratazio aldia amaitu arte luzatu ahal izango da. Hala ere, Talentua itzultzeko eta erakartzeko planaren kasuan, diruz lagundutako kontratazio-aldiaren amaiera ezingo da 2023/02/28a baino gehiago luzatu. Aipatu data iristean, eta hasierako etenaldi-egoera dela eta (edo geroago errepika daitezkeen beste batzuk) kontratazioak ezarritako gutxieneko iraupena (12 hilabete) bete ezin izan badu, etenaldiak eragin ez dien eta laguntza emateko baldintzak betetzen dituzten kontratazio-aldiak soilik hartuko dira kontuan dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatu ahal izateko.

Kasu horietan, laguntzaren zenbatekoa berriz kalkulatu da eta proportzionalki murriztuko, eta aipatu muga-egunera arte betetako kontratu-aldiak bakarrik hartuko dira kontuan.

2.– Diruz lagundutako kontratazioei eragiten dieten lanaldiaren aldi baterako murrizketak egiten badira, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren (MURRIZTAPENAREN ABEEE) 22 eta 23. artikuluetan ezarritako kausetan oinarritutako aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteetatik eratorriak, murriztapen horiek ez dira kontuan hartuko deialdi honetako Oinarrietako 5 eta 6. artikuluetan ezarritako gutxieneko lanaldiaren baldintza betetzen den ala ez balioztatzeko. Lanaldiaren aldi baterako murrizketa horiek kontuan hartuko dira dirulaguntzaren azken kalkulua egiteko. Laguntzaren zenbatekoa berriz kalkulatu da eta proportzionalki murriztuko, burututako lanaldiaren portzentajeak soilik kontuan izanik.



Europar Batasuna
Europako Gizarte Funtaa
EGFK zure etorkizunean inbertitzen du

Unión Europea
Fondo Social Europeo
El FSE invierte en tu futuro

Bi egoera hauetako edozein gertatuz gero, Donostia Sustapenari jakinaraziko zaio 15 egun naturaleko epean, hura gertatzen denetik zenbatzen hasita. Sustapenak egoera egiaztatzeko eta laguntzaren zenbatekoa berriz kalkulatzeko beharrezko dokumentazioa ezarriko du.

7. ARTIKULUA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIKO ALDIBEREKOTASUNA

Dirulaguntza hauek ematea ez da helburu eta aldi bererako emandako beste laguntza batzuekin bateragarria izango, horien jatorria edozein izanik ere, esaterako, Administrazio edo erakunde publiko edo pribatuak, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeenak. Edonola ere, bateragarriak izango dira indarrean dagoen legediaren arabera egokituko zaizkien hobariekin edo Gizarte Segurantzarako kuoten murriztapenekin.

Oinarri hauetan ezarritako dirulaguntzek Batzordearen 1407/2013 Erregelamenduan (EB) (2013ko abenduaren 18koa, 2013ko abenduren 24an EBAOn argitaratua eta EBren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107 eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa) ezarritako "minimis" arauak beteko dituzte.

8. ARTIKULUA AURKEZTU BEHARREKO ESKAERAK ETA DOKUMENTAZIOA.

Eskaerak aurkezteko epea **oinarri hauen iragarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik dirulaguntza honetara bideratutako baliabide ekonomikoak agortu artekoa** izango da (kasu horretan, agortze hori Donostia Sustapenaren web orriaren argitaratuko da) **edo, bestela**, deialdia itxi arte, hau da, **2021eko azaroaren 10era arte**.

Eskaera-epea amaitu ondoren, soberakina baldin badago edo hornidura ekonomikoa areagotzen bada, eta Donostia Sustapenak hala nahi badu, oinarri hauek aldatu eta eskaeraren epea zabaldu ahal izango du (egoki diren kanaletan argitaratuko da).

Eskaerak modu telematikoan aurkeztu ahal izango dira, Donostia Sustapenaren web orriaren bitartez (www.fomentosansebastian.eus).

Salbuespenezko eta behar bezala justifikatutako kasuetan, eskaera Sustapenaren atariaren bitartez egin ezin bada, Sustapenak baimena emanez gero, eskaera egiteko beste kanal bat gaituko da.

Eranskinak guttiz bete beharko dira eta behar bezala sinatuta egon beharko dira. Sinadura bat behar duen erantsi beharrezko dokumentazioa modu digitalean sinatu beharko da.

Informazio gehiago izateko edo kontsultaren bat egiteko, deitu 943 482800 telefono-



zenbakira edo idatzi fomentoss@donostia.eus helbide elektronikora, eta gaian honakoa adierazi: "Talentua itzultzeko eta erakartzeko dirulaguntzak 2021"

Jendea artatzeko ordutegia Donostia Sustapenaren web orrian adierazten da.

Donostia Sustapenak eskaera aurkeztu aurreko arreta-zerbitzu bat eskaintzen du, egon daitezkeen zalantzak argitzeko. Zerbitzu hau posta elektronikoz eskatu behar da, aipatu helbidera idatziz, eta banakako edo taldeko saioetan egin ahal izango da, Donostia Sustapenak zehazten duenaren eta proiektu edo laguntzaren tipologiaren arabera.

Egoki den eskaera-inprimakiarekin batera, beharrezkoa den dokumentazio administratibo, tekniko eta ekonomiko guztia erantsiko da.

Dokumentazio administratiboa:

- a) Eskaera-orria ("Eskaera" eranskina).
- b) Dirulaguntza eskatzen duen pertsonaren edo erakundearen "Bankuko datuen eranskina", egoki den banku-erakundeak sinatua, edo horren baliokidea den banku-dokumentua, banku-erakundeak behar bezala sinatua.
- c) Pertsona fisikoa bada, eskatzailearen NANaren kopia.
- d) Pertsona juridikoa bada, eskatzailearen IFKren kopia eta, hala badagokio, pertsona ahaldunaren NANaren kopia.
- e) Gizarte Segurantzaren betebeharrekin egunean izatea frogatzen duten egiaztagiriak.
- f) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kidea bada, Teknologia, berrikuntza eta lehiakortasunaren Kontseilariordearen ebazpena, zeinak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Agente Zientifiko Teknologiko gisa izendatzen eta aitortzen duen.

Onuradunak egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako gainerako dokumentazioaren egitasunaren erantzukizun guztia bere gain hartzen du.

Pertsona interesdunek aurrez dokumentu hauetako bat aurkeztu badute, Donostia Sustapenaren 2017. urtetik aurrerako laguntza-programaren batean parte hartzeko, ez da beharrezkoa izango atal honetan eskatzen den dokumentazioa berriz aurkeztea, baldin eta indarrean egoten jarraitzen badu eta datuak aldatu ez badira.

Donostia Sustapenak, egiaztagiri telematikoen bitartez, zuzenean lortuko ditu Gipuzkoako Foru Ogasunak igorritako zerga-betebeharrak betetzeari dagokion egiaztapena (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Zerga-bilketa) eta ekonomia-jardueren zergaren historikoa (jardueren altak, bajak, aldaketak, epigrafeak).

Dirulaguntzaren eskaera eta ordainketa ezberdinak egiteko unean Udal Zerga-bilketaren, Foru Ogasunaren edota Gizarte Segurantzaren betebeharrekin egunean ez dauden Erakundeek horiekin egunean daudela egiaztatu beharko dute.



Eskatzaileak berariaz uko egin ahal izango dio Donostia Sustapenak datu horiek atzitzeari, baina aurkakotasun horretarako arrazoiak eman beharko ditu (2016/679 Erregelamenduaren (EB) 21. art., Datuen Babesarena) eta egoki diren egiaztapenak aurkeztu beharko ditu.

- Dirulaguntza eskatzen duen enpresaren zerga-betebeharrekin egunean izatea frogatzen duten egiaztagiria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntza eskatzen duen enpresari buruz igorritako ekonomia-jardueren dokumentu eguneratua edo historikoa.
- Donostiako Udalaren ziurtagia, dirulaguntzaren eskatzaileak berarekiko zorrik ez duela egiaztatzen duena.

Dokumentazio teknikoa eta ekonomikoa:

Memoriak garatu beharreko proiektu berritzailea deskribatuko du. Informazio teknikoa eta ekonomikoa barne hartuko du, proiektuaren diseinu orokorra erakutsiko du (faseen garapena, zereginak, arduradunak, kronograma, emaitzaren adierazleak) eta une horretan zein egoeratan dagoen argi adieraziko du. Honako atal hauek barne hartuko ditu ("Memoriaren gidioa" eranskina):

Proiektuari dagokion dokumentazioa

1. Proiektuaren izenburua.
2. Eskatzailearen identifikazio-datuak eta datu orokorrak.
3. Proiektuaren helburuak eta deskribapen laburra.
4. Aurrekariak eta proiektuaren justifikazioa.
5. Lan-kronograma.
6. Proiektuaren bideragarritasuna eta eraginkortasuna:
Proiektuaren helburuak, adierazleen jarraipena.
Fase nagusien eta proiektuaren garapenaren deskribapen labur bat.
Beharrak: gastuak, langileak, laguntza teknikoa...
7. Proiektuak izan dezakeen eragina, posizionamendu lehiakorrari, proiektuaren emaitzek erakundean, hirian edota merkatuan izango duten eraginari eta nazioarteko proiektuari dagokionez.
8. Fasean lortzea espero den emaitzak, eskatutako laguntzak jaso ditzaketenak.
9. Jarraipena, kontrol-adierazleak: entregagaiak, bilerak, etab.
10. Proiektuaren garapen jasagarria: ekonomiaren, gizartearen edota ingurumenaren jasagarritasun-irizpideetan oinarritua.
11. Proiektuak hiriko lerro estrategikoekin eta sustatutako sektore estrategikoekin duen lotura.

Lanari dagokion dokumentazioa:

1. Eskatutako Profilaren deskribapena
2. Sortutako Lan-aukeraren deskribapena: iraupena, harrera, jarraipena, barne-garapena
3. Lan-taldearen deskribapena (barnekoa-kanpokoak), langile-kopurua areagotzeko aurreikuspena, ...



4. Enpresako erreferentziako pertsona, hautaketa-prozesurako
5. Estali beharreko eskaintzaren kudeaketarekin eta hautagaien bilaketarekin lotutako egutegia, zera adieraziz:
 - Eskaintzak argitaratuko diren gutxi gorabeherako datak
 - Hautaketa-prozesua ixtea aurreikusten den data
6. Kontratututako pertsonarentzat aurreikusitako Harrera-plana, zeinak honakoa barne hartuko duen: enpresaren funtzionamendua, bere jarduera eta osatuko duen proiektua, eta kontzeptuari eta garapen jasangarriaren (ekologikoa, ekonomikoa eta soziala) garrantziari buruzko sentsibilizazioaren atal bat.

Memoria modu argi eta ulerterrazean idatzita egongo da eta proiektua ulertzea galarazten duten teknizismoak saihestuko dira. 10. artikuluan zehaztutako proposamenen balioztapen-irizpideak balioztatzea ahalbidetzen duen informazio zehatza barne hartuko du. Gomendatzen den gehieneko luzera 8 orrikoa da. Memoriaren kopia digital bat entregatuko da edo posta elektronikoz bidaliko da, helbide honetara: fomentoss@donostia.eus.

Onuradunak egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako gainerako dokumentazioaren egitasunaren erantzukizun guztia bere gain hartzen du.

9. ARTIKULUA ESKAERETAKO AKATSEK ZUZENKETA

Dokumentazio guztia aztertu ondoren, Donostia Sustapenak osorik beteta ez dagoela edo dokumenturen bat falta dela egiaztatzen badu, eskatzaileari akats hori zuzentzea edo beharrezko dokumentuak aurkeztea eskatuko dio, hamar egun balioduneko epean. Hala egin ezean, aipatu eskaera baztertuko dela adieraziko dio, izapide gehiago egin gabe eta horri dagokion epaia emanez. Dokumentazio administratiboa eta dirulaguntza honen berriazko dokumentazioa zuzendu ahal izango dira. Donostia Sustapenak komenigarritzat jotzen gero, proiektuaren memoriari buruzko azalpenak eskatu ahal izango ditu.

Zuzenketak posta elektronikoz komunikatuko dira, onuradunak harremanetarako posta gisa adierazi duen helbidearen bidez. (jakinarazpenetarako helbide elektronikoa).

Zuzenketak egiteko eskatutako dokumentazioa hasierako eskaera egiteko erabilitako kanal bera erabiliz aurkeztuko da. Posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak ez dira onartuko.

Dirulaguntzak Donostia Sustapenak emandako esanbidezko ebazpenaren bidez ematen edo ukatzen dira, eta posta elektronikoz jakinaraziko da.

10. ARTIKULUA DIRULAGUNTZAREN IZAPIDEAK ETA EBAZPENA

Eskaerak sarrera-erregistroaren ordenaren arabera ebaluatu eta ebatziko dira, laguntzara bideratutako baliabide ekonomikoak agortu arte.



Oinarrien arabera aurkeztutako proiektu guztiak 100 puntuko gehieneko puntuazio baten baitan ebaluatuko dira.

Aurkeztutako proiektu guztiak honela ebaluatuko dira:

- 1. eta 2. atalei buruzko balioztapena, gehienez 50 puntu, laguntza onartu ahal izateko, gutxienez, 35 puntu lortu behar dira.
- 3. atalari buruzko balioztapena, gehienez 50 puntu, laguntza onartu ahal izateko, gutxienez, 30 puntu lortu behar dira.

Proiektuak honako balioztapen-irizpideen arabera ebaluatuko dira:

1. Proiektuaren balioztapen teknikoa	47
1.1 Proiektuaren diseinua eta kalitatea (proposamena)	10
1.2. Proiektuaren bideragarritasuna eta eraginkortasuna: helburuak, adierazleak,	17
1.3 Proiektuaren garapen jasagarria: ekonomiaren, gizartearen edota ingurumenaren jasagarritasun-irizpideetan oinarrituta.	3
1.4 Proiektuak izan dezakeen eragina: posizionamendu lehiakorra, nazioarteko proiektzioa, ...	17
2. Hiriarekin eta Donostia Sustapenak zehaztutako lerro eta sektore estrategikoekin duen lotura	3
3. Planteatutako garapen profesionalaren (enplegua) proposamenari buruzko balioztapen teknikoa	50
Planteatutako garapen profesionalaren (enplegua) proposameneko profilaren prestakuntza	20
Lanpostuaren eta kontratatutako pertsonaren proiektzioa eta jasagarritasuna.	15
Proiektua eta kontratatuko den pertsona garatzeko planteatzen den lan-taldea	15
PROIEKTUAREN PUNTUAZIOA GUZTIRA	100

Donostia Sustapena harremanetan jarri ahal izango da 1. eta 2. ataletarako gutxieneko puntuazioa gainditu ez arren, 30 puntu edo gehiagoko puntuazioa duten eskatzaileekin, proiektua behar bezala ulertzen duten egiaztatzeko.



Europar Batasuna
Europako Gizarte Funtaa
EGFK zure etorkizunean inbertitzen du

Unión Europea
Fondo Social Europeo
El FSE invierte en tu futuro

Eskatutako dirulaguntzaren ebazpena igortzeko epea bi hilabetekoa izango da, eskaera erregistratzen denetik zenbatzen hasita, epe horren baitan dokumentazio administratiboa zuzentzeko behar izan den denbora kontuan hartu gabe. Dirulaguntza ematearen ebazpena ezarritako epearen barruan igortzen ez bada, aipatu laguntza ez da emango.

Eskaeraren ebazpenaren unean, Donostia Sustapenak aurkeztutako derrigorrezko dokumentazioa aztertuko du. Eskatu gabe aurkeztu den bestelako dokumentazioa ez dago aztertu beharrik dirulaguntzaren ebazpenerako.

Dirulaguntza Donostia Sustapenak egindako berriazko ebazpen baten bidez emango edo ukatuko da.

Ebazpenak posta elektronikoz komunikatuko zaizkie eskatzaileei, Eskaeraren Eranskinean "Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa" gisa adierazi duten helbidearen bidez, eta onuradunen zerrendak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 Erregelamenduaren (EB) (2013ko abenduaren 17koa) 115. artikuluko 2. atalean jasotzen den zerrenda publikoan argitaratuko dira.

Igorritako ebazpenarekin desadostasunen bat egonez gero, alegazioak aurkeztu ahal izango dira, gehienez, ebazpenaren ondorengo hilabete bateko epean. Horretarako, Donostia Sustapenarekin harremanetan jarri ahal izango da, zeinak izapideak egiteko prozeduren berri emango dion. Donostia Sustapenak zehaztuaren mende egongo da, eta bi alderdiak Donostiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren baitan egongo dira.

11. ARTIKULUA DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz laguntzeko onartuko dira, orokorrean, zalantzarik gabe, diruz lagundutako jardueraren izaera duten eta Oinarri hauetan ezarritako epean egiten diren gastuak. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze-kostuak inola ere ezingo du merkatuko balioa gainditu.

Diruz lagundu daitezkeen gastuei DLOren 31. artikulua aplikatuko zaie.

Onartutako justifikazioa dagoeneko egindako ordainketak baino txikiagoa bada, egoki den zatia itzultzea eskatuko da.

12. ARTIKULUA DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ABONUA.

Dirulaguntza bi ordainketatan egingo da:

Lehenengoa (emandako zenbatekoaren % 70) honako dokumentazio hau aurkeztu ondoren egingo da:

- "Kontratazio-datuak" eranskina.



Europar Batasuna
Europako Gizarte Funtza
EGFK zure etorkizunean inbertitzen du

Unión Europea
Fondo Social Europeo
El FSE invierte en tu futuro

- Lan-kontratuaren kopia, honako baldintza hauek egiaztatzea ahalbidetiko duena: iraupena, lanaldia, lantokia, izango duen lanpostua eta ordainduko den urteko soldata gordinaren zenbatekoa (eurotan).
- Lan-kontratuaren komunikazioa
- Kontratututako pertsonaren NAN / AIZ kopia.
- Lanbideak igorritako "Izen-emate aldien txostena" dokumentua, kontratazioa hasi baino lehenagokoa.
- Langilearen Gizarte Segurantzako Lan-bizitza osoa, dirulaguntza eskatzen den kontratua hasi ondoren igorria.
- Donostiako Udalak igorritako kontratuaren mende dagoen pertsonaren errolda-ziurtagiria, kontratazioaren ondorengo epearekin, edo kontratatutako pertsonak Donostia Sustapenari baimena ematea hura eskatzeko. ("Kontratazio-datuak" eranskinean barne hartua)
- Kontratututako pertsonaren Curriculum Vitae.
- Kontratututako pertsonaren titulu akademikoaren kopia.
- Kontratututako pertsonak egoitza atzerrian edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo zuela egiaztatzen duen dokumentua, gutxienez, aurreko 12 hilabeteetan zehar, lan-kontratua hasteko eguna baino hilabete bat lehenago zenbatzen hasita eta modu jarraituan. Donostia Sustapenak baldintza hori egiaztatzeko beharrezkotzat hartzen duen edozein informazio eta ekarpen eskatu ahal izango ditu.

Dirulaguntzaren ebazpenaren aurretik egindako kontratazioek, gehienez, hilabete bateko epea izango dute aipatu dokumentazioa aurkezteko, ebazpenaren egunetik zenbatzen hasita.

Dirulaguntzaren ebazpenaren ondoren egindako kontratazioek, gehienez, hilabete bateko epea izango dute aipatu dokumentazioa aurkezteko, kontratazioaren egunetik zenbatzen hasita.

Bigarren ordainketa (emandako zenbatekoaren % 30) kontratazioaren lehenengo urtearen amaierako justifikazioaren ondoren egingo da.

Kontratuaren hasiera-datatik 12 hilabete igaro ondoren (ordezkapen-kasu bat bada, bi kontratuen artean igarotako denbora ez da zenbatzen), gehienez, bi hilabeteko epea egongo da justifikazioa aurkezteko.

Onuradunak aurkeztu beharreko dokumentazioa honakoa izango da:

- Eranskina: "Justifikazioa_Talentua itzultzea eta erakartzea"
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua, bere betebeharrekin egunean dagoela egiaztatzen duena.
- Programaren bitartez martxan jarritako proiektuaren edo jardueraren garapena deskribatzen duen azken memoria ("Azken memoria" eranskina).



Europar Batasuna
Europako Gizarte Funtea
EGFK zure etorkizunean inbertitzen du

Unión Europea
Fondo Social Europeo
El FSE invierte en tu futuro

- Kontratututako pertsonaren "Kide baten lan-bizitzaren txostena" dokumentua, enpresako iraunkortasuna egiaztatzen duena, dirulaguntza eskatzen den aldian eta lanaldian zehar.
- Kontratututako pertsonaren Kotizaziorako datuen txostena - Besteren konturako langileak (KDT), justifikazio-aldia bere baitan hartzen duena.
- Nominen, gizarte segurantzen eta horiei dagozkien ordainketen kopiak. (Langileak sinatutako nominekin eta ordainagiriek balio bera dute).

Bi kasuetan, dokumentazioa modu telematikoan aurkeztu beharko da. Posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak ez dira onartuko. Era berean, eranskin guztiak osorik bete behar dira.

Donostia Sustapenak, egiaztari telematikoan bitartez, zuzenean lortuko du Gipuzkoako Foru Ogasunak igorritako zerga-betebeharrak betetzeari dagokion egiaztapena (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Zerga-bilketa).

Dirulaguntzaren eskaera eta ordainketa ezberdinak egiteko unean Udal Zerga-bilketaren, Foru Ogasunaren edota Gizarte Segurantzaren betebeharrekin egunean ez dauden Erakundeek horiek egunean daudela egiaztatu beharko dute.

Eskatzaileak berariaz uko egin ahal izango dio Donostia Sustapenak datu horiek atzitzeari, baina aurkakotasun horretarako arrazoiak eman beharko ditu (2016/679 Erregelamenduaren (EB) 21. art., Datuen Babesarena) eta egoki diren egiaztapenak aurkeztu beharko ditu.

- Dirulaguntza eskatzen duen enpresaren zerga-betebeharrekin egunean izatea frogatzen duten egiaztariak.
- Donostiako Udalaren ziurtapena, dirulaguntzaren eskatzaileak berarekiko zorrik ez duela egiaztatzen duena.

Edonola ere, laguntza justifikatzeko ezarritako epea igarotzen bada dagokion dokumentazioa aurkeztu gabe, Donostiako Sustapenak onuradunari eskatuko dio dokumentazio hori aurkezteko gehienez 15 egun naturaleko epean, jakinarazpena egiten den unetik kontatzen hasita. Behin epe berri hori igarota, dagokion dokumentazioa aurkeztu ez bada, laguntza ukatuzat emango da, eta, beraz, kobratzeko eskubidea galduko du, edo horren lekuan, dagoeneko jasotako zatia ordaindu beharko du.

13. ARTIKULUA ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Dirulaguntza hauen onuradunek Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharrak izango dituzte, ondore hauetarako, aplikagarri deklaratu direnak; besteak beste, honako betebeharrak aipatzen dira:

- a) Dirulaguntza diruz lagundutako jarduerak egiteko zuzentzea.



- b) Donostia Sustapenak berriaz baimendu ezean, aurkeztutako proiektuaren zehaztapenak eta eginkizunak errespetatzea eta betetzea, eta kontratatutako pertsonak aipatu proiektuarekin eta eginkizunekin duen lotura zaintzea.
- c) Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztea, ezarritako moduan eta epean.
- d) Jasotako dirulaguntzak aplikatu izanaren egiaztagiria gordetzea, egiaztapen edota ikuskapen jardueretan erabil daitezkeen bitartean eta, beti, aplikatu beharreko araudian ezarritako epean zehar.
- e) Zenbatu proiektua osatzen duten jardueren gastu eta diru-sarrera guztiak.
- f) Kontabilitateko liburua behar bezala osatzea, horretara behartuta dagoenean.
- g) Zerga-betebeharrekin eta Gizarte Segurantzakoekin egunean egotea.
- h) Donostia Sustapenari egoera subjektibo edo objektibo ororen aldaketak komunikatzea, dirulaguntzak ematean kontuan izan direnak, egoera horren ondorengo 15 eguneko gehieneko epean.
- i) Emandako laguntzei dagokienez dituen funtzioak burutuz, Donostia Sustapenak eskatzen duen informazio guztia aurkeztea.
- j) Dirulaguntza hauek jasoko dituzten proiektuen sustapen- eta hedapen-jarduketetan, Donostia Sustapena eta Europako Gizarte Funtsa laguntza honen aldi bereko finantzazailer gisa aipatzea (15. artikularen arabera), bere erakunde-irudia eta legenda egingo diren komunikazio-euskarrietan txertatuz (web-orriak, kartelak, e-mailak, etab.).
- k) Kontratututako pertsonari dirulaguntzaren xede-kontratazioa Europako Gizarte Funtsak aldi berean finantzatua dela jakinaraztea, EAEko 2014-2020 Programa Eragilearen markoan, eta kontratatutako pertsonarengandik beharrezkoak diren datuen bilketan kolaboratzea.
- l) Donostia Sustapenak deitzen dituen bilera guztietara joatea, dirulaguntza hauen xedearen jarraipena egiteko helburuarekin.
- m) Jasotako dirulaguntzarekin lotuta, Donostia Sustapenak deitutako jardunaldietan (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena, etab.) parte hartzea.
- n) Hala badagokio, Donostia Sustapenarekin elkarlanean aritzea, finantza-kontrolaren eta egiaztapenaren jarduketetan, beharrezko informazio eta dokumentazio guztia bere esku jarritz.
- o) Dirulaguntzaren xede-jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren baimen guztiak izatea.
- p) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
- q) Donostia Sustapenari helburu eta denbora bererako jasotako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta bestelako baliabideak komunikatzea.
- r) Donostia Sustapenari baimena ematea bere enpresen eta I+G+b Agenteen direktorio digitaletan harremanetarako datuak, jarduera, merkataritza-izena, logotipoa, marka eta onuradunak ekonomia-trafikoan erabilitako beste edozein zeinu bereizgarri argitaratzeko. Helburu horretarako, onuradunak aipatu elementuen ustiapen-baimen bat emango dio Donostia Sustapenari, aipatu helburuetara mugatua, eta hark modu baketsuan erabiliko duela bermatuko du.
- s) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanaz) komunikazio-euskarrietan (weba, sare sozialak, e-mailak, megafonia, etab.), sustapen eta hedapenerako materialen edizioan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan, etab.



Onuradunek aholkularitza eskatu ahal izango diote Donostiako Udaleko Euskaraz-zerbitzuari testuak itzultzeko eta zuzentzeko (gehienez, hilean 1.000 karaktereko itzulpenak eta 9.000 karaktereko zuzenketak), baldin eta zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira.
([Http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es](http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es))

14. ARTIKULUA ITZULERA

Onuradunak jasotako ekarpena gehi diruaren legezko interesa –zenbatekoen ordainketa egin den unetik– itzuli beharko du, honako egoera hauetako edozeinetan:

- Oinarri hauetan ezarritako betebeharren hauste larria eta errepikakorra.
- Ekarpenaren helmuga Oinarri hauetan ezarritako zehaztapenen arabera justifikatzeko betebeharra haustea, edo nahikoa ez justifikatzea.
- Onuradunaren jarduerari aplikatu dakizkiokeen egiaztapen- eta ikuskapen-jarduketekiko erresistentzia, aitzakia, eragozpena edo ezezkoa, eta kontabilitateari, erregistroei eta dokumentuen kontserbazioari dagozkion betebeharrak haustea, hortik enplegua egiaztatzeko ezintasuna eratortzen denean, jasotako ekarpenak eta finantza-jardueren errealitatea eta erregularutasuna direla eta, edo helburu bererako dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen aldiberekotasuna, jatorria edozein izanik ere, hau da, Administrazio edo erakunde publikoak edo pribatuak, nazio-mailakoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeak.
- Jarduera gehiegi finantzatzen bada, xahutu gabeko edo gehiegi finantzatutako zenbatekoan.
- Kontratua deuseztatzea objektiboak edo enplegatzailearenak ez diren arrazoiak direla eta.

Ekarpena itzuliko da Donostia Sustapenak Oinarri hauetan ezarritako arrazoiren bat jazotzen dela egiaztatzen duenean eta onuradunari bidaltzen dionean, jarraian azalduko den moduari jarraikiz.

Diru-itzulera laurogeita hamar (90) egun naturaleko epean egin behar da, Donostia Sustapenak onuradunari artikulu honetan dirua itzultzeari buruz jasotako kausa baten berri ematen dionetik –burofax bidez– zenbatzen hasita.

Aurrez aipatu diren dirua itzultzeko arrazoiren bat jazotzen bada, onuradunak ordaintzeke gera daitezkeen diru-kopuruak kobratzeko eskubidea galduko du.

15. ARTIKULUA ALDI BEREKO FINANTZAKETA

Oinarri hauetan jasotzen diren Bertako talentua itzultzeko eta erakartzeko dirulaguntzen % 50a Europako Gizarte Funtsak finantzatuko du, EAEko EGF 2014-2020 Programa



Eragilearen markoan, honako programa honetarako: "Donostia GazteEkin: langabe gazte kualifikatuak hiriko sektore emergenteetan eta estrategikoetan lan-merkatuan sartzea".

16. ARTIKULUA IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA.

Indarrean dagoen datuak babesteko araudian ezarriari jarraikiz, Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen eskatzaileei jakinarazten zaie, egoki den eskaeraren bitartez ematen dituzten izaera pertsonaleko datuak eta laguntzen tramitazioan edota kudeaketan zehar (laguntzak eman ondoren) emandako beste edozein dokumentazio txertatuko direla, Donostiako Udalak tratatu ahal izateko, Tratamenduaren Erantzulea izango dena, eta Donostia Sustapenak kudeatzeko, tratamenduaren arduradun gisa jardungo duena. Tratamenduaren helburua eskaera kudeatzea eta aipatu dirulaguntzen izapideak egitea da.

Tratamenduaren zilegitasun-oinarria Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 6.1.e) artikulua da, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez (DBEO): datuak tratatzea ezinbestekoa da interes publikoarekin edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiltzean burututako eginkizun bat betetzeko: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeena; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriena eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra.

Oinarri hauetan edo egoki diren eskaera-inprimakietan hala adierazten denean, derrigorrezkoa izango da datu pertsonalei buruzko beharrezko informazioa aurkeztea, eta hura ematen ez bada edo datu okerrak ematen badira, ezingo da eskaerarik kudeatu.

Datuak, bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen balizko erantzukizunak zehazteko beharrezkoa den denboran zehar gordeko dira.

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen onuradunek aurkeztutako datu pertsonalak nazio-mailako edo nazioz gaindiko erakundeei laga ahal izango zaizkie, aipatu dirulaguntzak aldi berean finantzatzen dituztenak edota horien kudeaketan Donostia Sustapenarekin lankidetzan aritzen direnak, beharrezkoa denean eta emakida kudeatzeko helburu soilarekin.

Halaber, jakinarazten da, dirulaguntzak emateak berekin ekarriko duela onuradunaren identifikazio-datuak komunikatzea edo lagatzea, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren web-orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz; kasu horretan, emandako dirulaguntzak 3.000 euroko zenbatekoa gainditzen duenean bakarrik, edo zenbatekoa edozein izanik ere, galdagarria denean.



Europar Batasuna
Europako Gizarte Funtaa
EGFK zure etorkizunean inbertitzen du

Unión Europea
Fondo Social Europeo
El FSE invierte en tu futuro

Kaltetuek datuak atzitzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak eta datuak babesteko indarrean dagoen araudian jasotako beste eskubide batzuk erabili ahal izango dituzte, hala dagokionean, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuan, Ijentea kalea 1, 20003 Donostia helbidean.

Eskubide horiek erabiltzean behar bezalako arreta eskaini ez bada, erreklamazio bat jarri ahal izango da Datuak Babesteko Euskal Agentzian. Helbidea: Beato Tomás de Zumárraga kalea, 71 – 3. solairua - 01008 Gasteiz. Hala ere, lehen auzialdian, Donostiako Datuen Babesaren Ordezkaritzan erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du. dbo@donostia.eus.

Ondore horietarako, ohartarazten da, egoki den eskaera aurkeztearen bidez, eskatzaileak aurreko paragrafoetan adierazten denetik eratorritako datuen komunikazioak edo lagapenak berriaz baimentzen dituela.

17. ARTIKULUA AZKEN XEDAPENA.

Indarrean sartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez iragarriko dira eta bertan argitaratu ondorengo egunean sartuko dira indarrean.

Pertsona interesdunek eskaera aurkezteak berekin dakar Oinarriak guztiz onartzea.

Erantzukizunetik salbustea.

Onuraduna izango da laguntzaren xede-jarduera egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz sortuko diren kalte pertsonal edota materialen erantzule bakarra, eta Donostia Sustapena aipatu kontzeptuen ondoriozko erantzukizun orotik salbuetsita utziko du.

18. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren dirulaguntzak Oinarri hauetan jasotako arauen arabera zuzentzen dira eta, modu osagarrian, DLOean eta hura garatzen duen Erregelamenduan (887/2006 Errege Dekretuz onartua, uztailaren 21ekoa, DLOren Erregelamendua onartzen duena, aurrerantzean, DLOE) barne hartutako arauen arabera zuzenduko dira; baina aipatu DLOean barne hartutako kudeaketa-printzipioei eta bere 20. artikulua aipatzen dituen informazio-printzipioei dagokienez, hori guztia bere 3.2 artikuluaaren bigarren paragrafoarekin bat etorritik, zeinak aplikazio hori zehazten duen.

Bestalde, Oinarri hauek aipatu legezko testuei berriazko igorpenak egiten dizkietenean soilik aplikatuko dira DLO eta DLOE.



Donostian, 2021eko uztailaren 8an.

Euken Sesé
Fomento de San Sebastián, S.A.-ko Gerentea